

ERDIALDEKO AUZOKO BILERA (Untzagako Jubilatuen egoitza, 2013/11/21)

<p>Udal webgunea sarriago eguneratzea eskatu dute.</p>	<p>Agenda eta albisteen blokea sortzen diren premien arabera eguneratzen dira; udal akordioak (udal osoko bilkurarenak eta gobernu batzarrenak) webgunean kaleratzen dira. Horrez gain, webgunean atal bereziak sortu dira, proiektu esanguratsuetan sortzen diren aurrerapausoen berri emateko eta baita ere martxan jarri diren parte-hartze prozesu guztietan hiritarren parte hartzea sustatzeko eta errazteko.</p>	<p>Alkatetza.</p>
<p>Galdetzen dute edukiontzi marroietan txipik jarriko den.</p>	<p>Bai, edukiontziak zabaltzeko sistema aldatu egin da (txartel txipduna giltzaren orde), sistema horretan izena eman duten pertsonen edukiontzia ondo erabiltzen duten kontrolatzeko eta udalerriko birziklapen tasari jarraipen bat egiteko.</p>	<p>Alkatetza.</p>
<p>Eguaztenetako kale azoka edo <i>merkadilloa</i> beste leku batera eramatea eskatu dute.</p>	<p>Errebalera eraman zenean beste aukera batzuk ere aztertu ziren, eta horixe izan zen egokientzat hartu zena; gauzak ez direnez aldatu, udalak berretsi egiten du erabaki hori.</p>	<p>Alkatetza.</p>
<p>Ego erreka uraren kalitateagatik kexatu dira: oso zikina dago eta usain txarra botatzen du, horrek, auzoko jendeari eta Egogain kaletik dabiltzanei egiten dien kaltearekin.</p>	<p>URAk (Eusko Jaurlaritzaren menpeko denak) hainbat lan egiteko asmoa du Ego erreka Eibarren bere onera ekartzeko, birnaturaltzeko eta hobetzeko. Proiektu honek dituen helburuetako bat hauxe da: hiri-ingurune honetan erreka-paisaia hobetzea, hartara, inguruan bizi direnen bizi-kalitatea ere hobetu egingo baita.</p> <p>Bestalde, Ego erreka ertzak hobetzea ere planteatu da, landareak sartuz; horrela, habitata askotarikotu egingo litzateke eta ekosistema akuatikoek berezkoak dituzten landaredia eta fauna garatzeko baldintza hobeto batzuk mantentzen lagunduko luke.</p>	<p>Alkatetza.</p>

ERDIALDEKO AUZOKO BILERA (Untzagako Jubilatuen egoitza, 2013/11/21)

<p>Oinezkoen alderdietan, zapatu eta jaiegun bezperetan, gauez, polizia gehiagoren presentzia eskatu dute (oinezko patruilak).</p>	<p>Gaia aztertuko da baina gai delikatua da, "jai" giro batean egon daitekeen polizia-presentzia handiago batek tentsioa sor dezakeelako eta liskar bilakatu, eta udaltzainak edo agenteak, horrelakoetan, babes gabe geratuko lirateke.</p>	<p>Alkatetza.</p>
<p>Bide publikoaren okupazioak bideratuta dauden jakitea eskatu dute eta Ordenantzaz kanpoko okupazioen kontra zeozer egin den.</p>	<p>Ostalaritza Ordenantza onartu da eta bide publikoaren okupazioa arautzen duen Ordenantza berezi edo zehatza. Ordenantza horiek betetzen ari den ikusteko jarraipena egiten ari da.</p>	<p>Hirigintza</p>
<p>Ego errekan, Egogain kalean erreka lur azpian sartzen den leku horretan dagoen ur-jauzia aldatzea eskatu dute zarata asko ateratzen duelako.</p>	<p>Ego erreken zehar dauden ur-jauziak edo presa txikiak derrigorrezkoak dira uraren abiadura murrizteko. Ubidea naturala denean, terrenoak berak sortzen ditu presa txiki horiek; aldatu batean ostera -oraingo kasu honetan bezala- "azterketa hidrauliko" baten arabera egiten dira. Errekaren trazatua eta mantentze-lana URAREN esku dago (Eusko Jaurlaritza). Hari bidali zaio kexa. URA izango da "erreka naturaltzeko, berregokitzeko eta hobetzeko obrak" egingo dituenak, eta obra horren barruan sartuta dago erreka-ertzeko landarediarena, zarata, neurri batean behintzat, motelduko dutenak. URAREN proiektu barruan dago baita presa txikiak beharrezkoak diren, horrela urak ez lirateke geldotuko (eta udan ere ez zen usainik eta eltxorik izango), baina ur-jauziak kentzeke.</p>	<p>Hirigintza</p>
<p>Auzoko bizilagun batek Bildosolaneko txaletaren inguruaz galdetu du, inguru hartan eskailera mekanikoko zati batzuk ipin daitezkeen eta etorkizunean zelan geratuko den.</p>	<p>Bildosolaren txartela bizitegi-garapeneko unitate baten barruan dago. Unitate hori garatzen ari da etxeak okupatzen duen partzela hori udal jabetzakoa izan dadin. Alde hori berriro urbanizatzeko asmoa dago; auzoko bizilagunekin adostuko da zein izan daitekeen etorkizunean partzelaren erabilera eta baita leku horren diseinua ere. Horrez gain, eskailera mekanikoak jartzeko proiektua enkargatu da.</p>	<p>Hirigintza</p>

ERDIALDEKO AUZOKO BILERA (Untzagako Jubilatuen egoitza, 2013/11/21)

<p>San Andres pasealekuko etxe zaharrekin segurtasun eta higiene neurriren bat hartzea eskatu da.</p>	<p>Eibarko udaleko gobernu-taldeak urteak daramatza konponbide bat bilatzen San Andres pasealekuan hondatuta dauden eraikin horiek ahalik eta azkarren botatzeko, baina gauza guztien gainerik, hauxe da kontuan hartzen duena: estetika urbanoaren gainerik pertsonak eta baliabide publikoen gestio eraginkorra daudela. Uztailean hasi zen San Andres pasealekuko 4. eta 5. zenbakietako etxeak botatzeko betearazpen subsidiarioaren jardunbidea; jardunbide edo prozedura luzea eta zaila: horretan ematen diren pausu guztiak zuhurtasun handiz eman behar dira eta orain dela gutxi konpondu da etxe horietan bizitzen jarraitzen duten 4 familien bizitegi-arazoa. Udalak, familia horiei, beste aukera batzuk eskaini dizkie, etxebizitza duin bat, duten premietara egokitzen dena etxebizitza batez gozatzeko duten eskubidea berma dakien.</p>	<p>Hirigintza</p>
<p>Ardantza-Tunela zati horretan trenbidearen gainerik joango den pasealekuak izango duen altura zein izango den galdetu du; San Juan kaleko 13tik 19ra bitarteko eraikinetan horrek izango duen ondorioez.</p>	<p>ETS-k ez dio oraindik proiektua udalari entregatu eta beraz, ez daukagu datu horiek. Proiektua eskuratu bezain laster bizilagunei bilera-deia egingo diegu aurkezteko.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>Galdetu du ea justifikagarria den Ardantza-Estaziño zatian trenbidea bitan banatzeko egingo den gastua zati horretan irabazi nahi den denborarekin alderatuta.</p>	<p>Trenbidea bitan banatzeak duen helburua hauxe da: tranbia zerbitzu gehiago ipintzea eta trena maizago izatea.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>Eibarko Bizikleta plazaren zorua konpontzea eskatu dute.</p>	<p>Aurten ez da aurreikusten plaza horretan ezer egiterik. Aztertu eta datozen jardunaldietarako utziko da.</p>	<p>Obrak.</p>

ERDIALDEKO AUZOKO BILERA (Untzagako Jubilatuen egoitza, 2013/11/21)

<p>Kexa kartoiak edukiontzietatik kanpo uzten direlako.</p>	<p>Kartoiak azaltzen diren lekuak kontrolatu egiten dira. Dendaren bat denean Ordenantzak zer dioen ekartzen zaio gogora, eta baita ere kartoiak ateratzeko jarrita dauden orduak dakartzan akordioa ere, Mankomunitatearekin batera adostutakoa. Duela gutxi zirkular bat helarazi zaie Ordenantzak diona betetzeko obligazioa dutela gogora ekarriz eta hori ez errespetatzeak ekartzen dituen ondorioez ohartemanaz, isunak zeintzuk diren azpimarratuz.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>
<p>Kexa, gazteak bizikletan jaisten direlako Isasi kaleko espaloitik.</p>	<p>Arau-hauste bat edo egoera arriskutsuren bat ikusten denean, horren arabera jokatzeko da.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>
<p>Kexa, gauez, asteburuetan, Birjiñape eta Toribio Etxebarria kaleetan zarata egoten delako, tabernetatik irteten edo tabernetara sartzen ari diren gazteak ateratakoa.</p>	<p>Zainduko da taberneak ateak itxita eduki dezaten; baita zarata establezimenduetatik kanpo ez ateratzea ere.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>
<p>Kexa sartu da jendeak txiza egiten duelako San Andres parrokiako horman, Eibarko Bizikleta plazan.</p>	<p>Salatu egingo da bide publikoko edozein lekutan txiza egiten ari dena. Gainera, hemendik denbora gutxi barru kanpaina bat jarriko da martxan, helburutzat hiritarrek gai horretaz jabetzea eta ohartzea izango duena.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>

ERDIALDEKO AUZOKO BILERA (Untzagako Jubilatuen egoitza, 2013/11/21)

<p>Kexa, Bista Eder eta San Juan kalean autoak bigarren ilaran aparkatzen dutelako.</p>	<p>Zuzen aparkatuta ez dauden autoak zaindu eta salatu egingo dira.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>
<p>Zuloagatarren kalea, domeketan, oinezkoen alderdi gaueko 10ak arte bakarrik izatea eskatu dute, ez gauerdira arte (24:00).</p>	<p>Gaur egun, oinezkoen alderdi izateari uzteko ordua, gaueko 10ak ingurua da.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>
<p>Errebalen eguaztenetan jartzen den kale azokaren edo <i>merkadillo</i>aren seinale bertikalak hobetzea eskatu dute.</p>	<p>Gaia aztertuta, seinale bertikalak egokiak eta nahikoak zirela ondorioztatu zen.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>
<p>Kexa, Egogain kalean txakurrak solte ibiltzen direlako.</p>	<p>Alde hura zaindu eta, txakurren bat solte daudela ikusiz gero, egin beharrekoak egingo dira.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>

ERDIALDEKO AUZOKO BILERA (Untzagako Jubilatuen egoitza, 2013/11/21)

<p>Kexak daude Calbeton kaleko 7ko pegoraren sarreran eta garajeetako sarbidean, ostiral eta larunbat gauetan, jendea botaka edo txiza eginean ibiltzen delako.</p>	<p>Alde hura zainduko da horrelakorik gerta ez dadin.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>
<p>Bista Eder eta Eibarko Txikito kalean zamalanetarako dauden aldeak kentzea eskatu dute.</p>	<p>Kexa Trafiko batzordeari bidali zaio,azter dezan.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>
<p>La Salle ikastetxeari abisu hau ematea eskatu dute: eskolaz kanpoko jarduerak egiten dituztenean megafoniaren bolumena kontrolatu behar dutela auzokoei kalterik ez egiteko.</p>	<p>Bide publikoa okupatzeko eskaera bat egiten dutenean hauxe ekarriko zaie gogora: dezibelak indarrean dagoen Ordenantzak finkatzen duen zarata-maila horretara mugatu behar dituztela. Ordenantzak betetzen diren kontrolatzea Udaltzaingoiari dagokiola gogora ekartzea.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Erreka ertzak fumigatzea eskatu dute, Egogain kalean bistan geratzen den erreka zatiaren alboan belarra dagoen aldea, intsektu asko azaltzen direlako.</p>	<p>URArri dagokio horren erantzukizuna. Idatzia bidali zaie kexa hori kontuan har dezaten.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>

ERDIALDEKO AUZOKO BILERA (Untzagako Jubilatuen egoitza, 2013/11/21)

<p>Garbiketa handiagoa egitea eskatu dute, batik bat igandeetan edo jaiegun ondoren Bista Eder kaleko 1ean, hiriko hondakin solidoen edukiontziak dauden aldean eta Txiriokalean.</p>	<p>Mankomunitateari abisua pasatu zaio. Erantzun du domeka eta jaiegun guztietan garbitzen dutela. Esan dute domeka gauez urarekin garbitzen dela alde hori guztia, eta normalean, arazoa, edukiontzietatik kanpo utzitako hondakinetatik datorrela.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Bista Eder kaleko 1. pegoraren pareko espaloia konpontzea eskatu dute, baldosaren bat solte dagoelako.</p>	<p>Lan-agindua egin da baldosa horiek ahalik eta azkarren konpontzeko.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Altzubarrengo frontoian argiak pizteko eta kentzeko fitxa-sistema bat jartzea eskatu dute.</p>	<p>Frontoiaren argi-ordutegia aldatu egin denez, ez da uste fitxa-sistema jartzeko premiarik dagoenik.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Alzubarreneko frontoian itoginak daudela adierazi dute.</p>	<p>Lan-agindua egin da itoginak zeharo konponduta geratu ziren ikusteko edo berriro egin diren jakiteko. 2014ko otsailaren 7an egin zen lan hori.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>